



## 2deoren 2021eko deialdi iraunkorra

### 1. AURKEZPENA

2deoren deialdi iraunkorra Tabakaleraren 2deo laborategiak sustatutako programa bat da, euskarazko eduki berritzaileak sortzen dituzten gazteen ikus-entzunezko proiektuak tutorizatzeko eta babesteko helburua duena. Horretarako, programak mentoreak, banakako aholkularitza eta 2deo laborategiko tresnak eta instalazioak erabiltzeko aukera ematen dizkie parte-hartzaileei.

Deialdian parte hartzen duten proiektuak ebaluatzeko, hautatzeko eta jarraipena egiteko batzorde bat egongo da; hiru mentorek eta 2deo laborategiko ordezkari batek osatuko dute.

Deialdi iraunkorraren xedea da talentu gazteak eduki berritzaileetan oinarritutako proposamenen alde apustu egitera animatzea, baita euskarri ezberdinak eta euskarazko ikus-entzunezko produktuak sustatzea ere, horretarako produkzioarako eta zabalkunderako tresna berriek ematen dituzten aukerak baliatuta.

### 2. DEIALDIAREN XEDE DIREN PROIEKTUAK

**Aurkezten diren proiektuek nahitaez izan beharko dituzte euskarazko ikus-entzunezko edukiak. Dena den, askotarikoak izan daitezke landutako gaiak, hartzaileen sektoreak eta erabilitako ikus-entzunezko euskarriak. Hona hemen zenbait adibide: gai dibulgatiboak: aldaketa klimatikoa, artea; podcastak; filosofiari, historiari, politikari edo umoreari buruzko kanalak; musika, *lifestyle* delakoa edo bidaiak hizpide dituzten sare sozialetako kontuak, eta abar.**



### 3. ZUZKIDURA

- Mentoretza espezifikoa izango dute: aholkularitza eta orientazio espezifikoa jasoko du proiektu bakoitzak, eta, horrez gain, gainbegiratu egingo da garapen-prozesuan zehar. Parte-hartzaile bakoitzak hiru mentoretza-saio jasoko ditu, gehienez ere.
- 2de laborategiko *coworking* espazioa eta bertan dauden ekipo eta tresnak erabili ahal izango dira proiektua garatzeko (platoa, grabaketa-ekipoa eta postprodukzio-gelak).  
Gehienez ere 1500 €-ko produkzio-laguntza jaso ahal izango da, proiektuaren beharrezan araber. Hori batzordeak ebaluatu eta erabakiko du.

### 4. PARTE-HARTZAILEAK

Deialdia ikus-entzunezkoen arloan sortu eta esperimentatu nahi duten gazteei dago zuzenduta.

Gauzak horrela, bertan parte hartu ahal izango dute deialdi honetan ezarritako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisiko guztiek.

Deialdian banaka edo beste pertsona fisiko batzuekin elkartuta parte hartu daiteke. Taldeka parte hartzeko, ez da taldekideen arteko harremana formalizatu behar. Halakoetan, pertsona fisiko bat izendatu edo identifikatu beharko dute, 2deoren aurrean proposamenaren ordezkari izan dadin ondore guztietarako.

Parte-hartzaile bakoitzak proiektu bakarria aurkeztu ahal izango du.

### 5. BATZORDEA ETA BALORAZIO-IRIZPIDEAK

Batzordeak honako irizpide hauen arabera baloratuko ditu aurkeztutako proiektuak:

- Proiektuaren kalitatea eta sormena.



- Proiektuaren bideragarritasuna. Egungo gazteekin konektatzeko duen gaitasuna.
- Euskarrien eta edukien berritasuna.

Nahitaezkoa da parte-hartzaile bakoitzak deialdian eskatutako dokumentazio guztia aurkeztea hautaketa-prozesuan aurrera egiteko.

## **6. EPEAK ETA PROIEKTUAK HAUTATZEA**

Proiektuak jasotzeko deialdia iraunkorra izango da, eta 2021eko abenduaren 1etik aurrera egongo da zabalik.

Beren proiektua hautatua izan bada, 2deok proiektua aurkeztu eta hilabete natural bateko epean jakinaraziko die onarpena parte-hartzaileei.

## **7. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

Deialdira aurkezten diren parte-hartzaileek honako baldintza eta konpromiso hauek bete beharko dituzte:

- 18 eta 35 urte bitartean izatea.
- Ez egotea zigortuta laguntzak edo dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzarekin, ez penalki, ez administratiboki, ezta horretarako desgaitzen duen legezko lege-debekuren baten pean ere.
- KGNZ/Tabakalerak laborategian egindako lanak erabili ahal izango ditu deialdiaren xede den programaren, edukiaren eta emaitzen berri eman eta herritarren esku jartzeko.
- Deialdi honetan sortutako ikus-entzunezko lanen banaketan eta aurkezpen publikoetan, Tabakaleraren eta 2deoren parte-hartzea aipatuko da. Horretarako, beren markak, logoak eta izen komertzialak erabiliko dira (adibidez, kredituetan).



- zdeo laborategiko eta Tabakalerako espazioak erabiltzeko arauak errespetatuko dira.

Tabakalerak eskubidea izango du proiektu guztietako ordezkarien parte-hartzea berrikusi, eta, beharrezkoa bada, proiektua edozein momentutan azkentzeko.

## **8. IZEN-EMATEA ETA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK**

Deialdiaren oinarriak KGNZ/Tabakaleraren webgunean kontsulta daitezke. Izen-ematea sarean eskuragarri dagoen inprimakia beteta eta honako hauek jasoko dituen PDF bat aurkeztuta egingo da:

- Proiektuaren deskribapena (1 orri, gehienez ere).
- Proiektuaren oinarrian dauden erreferentziak (1 orri, gehienez ere).
- Proiektua egiteko aurreikusten den ikus-entzunezko plataforma.
- Taldekideen biografia. NANaren edo nortasun-agiri ofizialaren kopia.
- Dokumentuak euskaraz aurkeztu beharko dira eta ezingo dituzte, guztira, 10 MB gainditu.

## **9. JABETZA INTELEKTUALA**

Parte-hartzaile eta/edo ordezkari guztiek bermatuko dute deialdi honen harira aurkezten diren proiektu, dokumentu eta ikus-entzunezko material guztiak, baita, hautatuak izanez gero, deialdi honetan parte hartu bitartean sortzen diren elementu guztiak ere, originalak direla eta ez dituztela urratzen hirugarrenen jabetza intelektualeko eskubideak.

Oinarri hauek onartuz gero, hautatutako parte-hartzaileek eta/edo ordezkariak baimena ematen diote Tabakalerari jaso dituen edo laborategiko proiektuak gauzatzeko prozesuan sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko material guztiak egun ezagutzen ditugun euskarri mota guztietan erabiltzeko, betiere xede bakarria izanik deialdia, haren edukia eta haren emaitzak herritarrei jakinaraztea eta haientzat



eskuragarri jartzea, edozein kanalen bidez eta doan. Ondorioz, Tabakalerak eskubidea izango du eduki hori ikusgai jarri eta publikoki komunikatzeko, edozein kanalen bidez, izan proiektua gauzatu bitartean, izan hura bukatu ondoren, epemugarik gabe.

Esandako guztiak ez du eraginik izango autorearen eskubide moraletan, ezta gorago aipatutako dokumentuei eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialei dagokien jabetza intelektualaren ondare-edukiaren eskubide guztien titulartasunean; horiek materiala sortu duten parte-hartzaileen eta/edo ordezkarien esku goten jarraituko dute.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkari bakoitzak Tabakaleraren aurrean erantzun beharko die hirugarrenek jabetza intelektualari buruz jar ditzaketen erreklamazio guztiei, honako hauei dagokienez: (i) deialdi honen harira aurkeztutako proiektuak, dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak eta (ii) hautatuak izatekotan deialdian parte hartu bitartean sortutako dokumentuak eta testuzko, irudizko edo ikus-entzunezko materialak; hala, Tabakalerari kalte-ordainak ordaindu beharko dizkio kontzeptu horiei dagokienez egon litezkeen erreklamazioen harira sortutako kalte eta galera guztiengatik.

Halaber, eta Tabakaleraren markak, logoak eta izena 6. oinarrian ezarritakoaren arabera erabiltzeko, Tabakalerak elementu horiek ustiatzeko lizentzia emango die hautatutako parte-hartzaile edo ordezkariari. Lizentzia hori ez-esklusiboa, doakoa eta besterenezina izango da, eta proiektuen testuinguruan sortzen diren ikus-entzunezko lanak banatzeko eta zabaltzeko aurkezpenetan baino ezingo da erabili.

## **10. DATUEN BABESA**

Parte-hartzaileei edo ordezkariari jakinarazten zaie oinarri hauek onartuz gero, baimena ematen diotela Tabakalerari eskaera aurkezten den unean eta, hautatuak izatekotan, deialdian parte hartzen duten bitartean emandako datu pertsonalak tratatzeko, eskaera izapidetu eta kudeatu eta berau zabaltzeko lanak egin ditzan.

Datu pertsonal horiek erakunde eta organismo publikoei jakinaraziko zaizkie legez derrigorrezkoa bada. Halaber, deialdian parte hartzeko hautatuak izan



diren parte-hartzaile edo ordezkarien irudia eta izenak Tabakaleraren webgunearen bidez edo Tabakalerak bere jardueren berri emateko erabiltzen dituen euskarri ukigarri edo ukiezinen bidez helarazi ahalko zaizkie hirugarrenei, 10. oinarrian ezarritakoarekin bat eginez.

Testuinguru honetan, jakinarazten da datu pertsonal horiek ematea beharrezkoa dela; ondorioz, datu horiek ematen ez badira, laguntza publikoa jasotzeko eskaera ez da aintzat hartuko eta eskatzaileak ezingo du proiektuan parte hartu.

Tabakalerak hautagaitza baloratzeko eta, hala badagokio, deialdian izango duten parte-hartzea kudeatzeko eta lege-betekizunak betetzeko beharrezkoa den epean baino ez ditu gordeko parte-hartzaile edo ordezkarien datuak.

Edonola ere, parte-hartzaileei jakinarazten zaie eskubidea dutela (i) Tabakalerari eskatzeko beren datu pertsonalak atzitzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, tratamendua mugatzeko, beste norabait eramateko edo datuen tratamenduari uko egiteko; horretarako, idatzizko eskaera bat bidali beharko diote Tabakalerari, pribatasuna@tabakalera.eus helbide elektronikora, gaia "2DEO deialdia Prototipoak 2021" delarik eta datuen titularrak sinatutako gutun bat erantsita (jakinarazpenetarako helbidea adierazi beharko da) eta NANaren kopia batekin. Horrez gain, eskubidea dute (ii) Datuen Babeserako Espainiako Agentzian edo eskumeneko beste edozein kontrol-agintaritzatan erreklamazio bat aurkezteko, bereziki beren eskubideak errespetatu ez direnean.

## **11. PARTE-HARTZAILEEN IRUDI-ESKUBIDEAK**

Oinarri hauek onartuz gero, deialdi honetan parte hartzeko hautatuak diren parte-hartzaileek edo ordezkariak berariaz ematen diote baimena Tabakalerari (i) beharrezko bitarteko teknikoen bidez (argazkiak, bideoak, etab.) proiektuan izan duten parte-hartzea erregistratzeko, parte-hartze hori Tabakaleraren espazioetan egiten denean eta (ii) irudi horiek eta beren izena Tabakaleraren webgunean eta/edo beste edozein euskarri ukigarri edo

**TABAKALERA**



ukiezinetan erabili eta erreproduzitzeko, herritarrei deialdi honen xedea, edukia eta emaitzak ezagutarazi eta horiek gizartearen esku jartzeko.

Edonola ere, parte-hartzaile edo ordezkariari jakinarazten zaie edozein unetan dutela baimen hori kentzeko aukera.

## **12. OINARRIAK ONARTZEA**

Deialdi honetan parte hartzen dutenek, bertara aurkezteagatik bakarrik, onartu egingo dituzte oinarri hauek. Eskaeran informazioaren bat falta bada, parte-hartzaileak deialditik kanpo geldituko dira.

Informazio gehiago: [zdeo@tabakalera.eus](mailto:zdeo@tabakalera.eus)